La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante. En este sentido, la presentación de la oferta presupone para las licitadoras la aceptación voluntaria de dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución hasta su finalización.

7.- Hitzarmenean jasotako soldata ordaintzeko eginbidea.- Kontratistak sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan (2. ERANSKINA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA).

7.- Obligación de pago del salario recogido en el convenio.- La contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo sectorial según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel (ANEXO 2, de DECLARACIÓN RESPONSABLE)

8.- Subrogatzeko eginbidea.- Legezko arau batek,

8.- Obligación de subrogación.- Cuando una norma legal,

hitzarmen kolektibo batek edo efikazia orokorra duen negoziazio kolektiboko erabaki batek nahitaez behartzen badu adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzera zenbait lan-harremanetan, ondoren jasotzen diren klausulei jarraitu beharko zaie, SPKLren 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko:

a) Ohartarazten da kontratazioak berekin dakarrela langile guztien lan-kontratuen subrogazioa –hala badagokio, betebeharra ezartzen duen arauan jasotako gutxieneko antzinatasunarekin–, langile horiek beste kontrata batekoak izan arren kontratuaren xede den jarduera egiten ari baldin badira; horren ondorioz, enpresaburu berriari subrogatu egingo zaizkio aurrekoak zituen laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak eta betebeharrak.

b) Adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzeko neurriaren lan-kostuak kalkulatu ahal izateko, kontratu honen subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzak direla-eta behar den informazioa dagokion eranskinean adierazitakoa da.

Adjudikatuko den kontratuaren xede den prestazioa ematen ari den eta ukitutako langileen enplegatzaile den enpresak emandako informazioarekin osatu da aipatutako informazioa.

c) Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin kontratatzen badu, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean, administrazio-klausula partikularren agirietan jasotakoari eta kontratuan ezarritakoari zorrozki lotuz, barnean harturik gizarte- eta lan-arloetako eginbideak betetzea.

Subrogatu beharra dagoen kasuetan, adjudikaziodunak zerbitzuak ematen arituko diren pertsonen zerrenda aurkeztuko du zerbitzuak ematen hasi baino lehen, bere eskaintzan jasotako lanpostuen zerrenda kontuan hartuta, kontratuaren arduradunak aukera izan dezan plangintzaren barruko lanak betetzen ari diren pertsonak edozein unetan identifikatzeko. Halaber, enpresa kontratistak ezin izango ditu ordezkatu bere eskaintzan ezarritako langileak, eta ezin izango du kontratu berririk egin Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren berariazko baimenik gabe.

d) Eragotzi gabe, hala dagokionean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezartzen dena (2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartua), kontratista beharturik egongo da subrogazioak ukituriko langileei ordaindu gabe geraturiko soldatengatik erantzutera, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioengatik ere, baita kontratua suntsiarazten bada eta langileak kontratista

un convenio colectivo o un acuerdo de negociación colectiva de eficacia general imponga a la adjudicataria la obligación de subrogarse como empleadora en determinadas relaciones laborales, regirán las siguientes cláusulas en cumplimiento de lo previsto en el artículo 130 LCSP:

a) Se advierte de que la contratación se encuentra sometida a la subrogación de los contratos de trabajo de todos los trabajadores y trabajadoras –en su caso con la antigüedad mínima que se contemple en la norma de la que surge la obligación– que, a pesar de pertenecer a otra contrata, vengan realizando la actividad objeto del contrato, quedando la nueva empresaria subrogada en los derechos y obligaciones laborales y de Seguridad Social.

b) A fin de permitir una evaluación de los costes laborales que implicará la medida de subrogación de la adjudicataria como empleadora, la información que resulta necesaria sobre las condiciones de los contratos de las trabajadoras y trabajadores a los que afecta la subrogación de este contrato es el señalado en el anexo correspondiente.

Esta información ha sido elaborada con la información proporcionada por la empresa que viene efectuando la prestación objeto del contrato a adjudicar y que tiene la condición de empleadora de las trabajadoras y trabajadores afectados.

c) En caso de que la empresa adjudicataria contrate con terceros la realización parcial del contrato, la contratista principal asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Fundación Bizkaia Bizkaialde con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia social o laboral.

En los casos en los que exista la obligación de subrogación, la adjudicataria presentará, previamente al inicio de la prestación de los servicios, una relación nominal de las personas destinadas a los mismos, de acuerdo a la relación de puestos de trabajo recogida en su oferta, de manera que el responsable del contrato pueda identificar, en cualquier momento, a las personas que ejecutan los trabajos planificados. Asimismo, la empresa contratista no podrá sustituir al personal establecido en su oferta, ni realizar nuevas contrataciones, sin la expresa autorización de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.

d) Sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de lo establecido en el artículo 44 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, la contratista está obligada a responder de los salarios impagados a las personas trabajadoras afectadas por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad Social devengadas, aun en el supuesto de que se resuelva

berriak subrogatzen baditu ere. Edozelan ere, betebehar hori ez zaio inoiz kontratista berriari egokituko. Halakoetan, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak, behin egiaztaturik soldatok ez direla ordaindu, atxiki egingo ditu kontratistari zor zaizkion zenbatekoak, soldatak ordaintzen direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta egiaztatu arte ordaindu direla.

el contrato y aquellas sean subrogadas por el nuevo contratista, sin que en ningún caso dicha obligación corresponda a este último. En este caso, la Fundación Bizkaia Bizkaialde, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas a la contratista para garantizar el pago de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de estos.

9.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, hizkuntza arloan.- Bizkaia Bizkaialde Fundazioak sinatzen dituen kontratuak hizkuntza ofizial bien araubidearen mendean daude, honako arauetan ezartzen denarekin bat: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan, Euskararen Erabilpena Arautzeko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta arlo horretan indarrean dauden erkidegoko araudia eta foru-araudia.

9.- Condiciones especiales de ejecución en materia lingüística.- Los contratos celebrados por la Fundación Bizkaia Bizkaialde están sujetos al régimen de doble oficialidad lingüística establecida por el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley vasca 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskara, así como al resto de la normativa autonómica y foral vigente en la materia.

10.- Enplegua eta plantilla mantentzeko eginbidea.

SPKLren 76.2 eta 3 eta 202. artikuluen arabera, enpresa lizitatzaileak konpromiso hau hartuko du adjudikaziodun suertatzen bada: baldintza teknikoen agirian horretarako ezarritako gutxieneko langileak mantentzea, kontratuaren gauzatze guztian zehar. Horretarako, 2. ERANSKINean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez adierazi beharko dute lizitatzaileek kontratua gauzatzeko enplegatuko dituzten langileen kopurua eta izango duten lanaldia (urtean beteko dituzten lanorduetan adierazita). Plantilla ez bada homogeneoa izango kontratua gauzatzen den bitartean, egutegi bat aurkeztu beharko da, zehatz adierazita pertsona-kopurua, eta indibidualizatuta jasoko da bakoitzaren urteko lanaldia, pertsona bakoitzak beteko dituen lanorduetan adierazita. Horrez gainera, kontratuaren hasiera-data eta amaiera-data adierazi beharko dira.

10.- Obligación de mantener el empleo y la plantilla.

Conforme al artículo 76.2 y 3 y artículo 202 de la LCSP, la empresa licitadora se compromete a que, en caso de resultar adjudicataria, deberá mantener la plantilla mínima establecida a tal efecto en los pliegos de prescripciones técnicas a lo largo de toda la ejecución del contrato. A tal efecto, los licitadores deberán manifestar mediante la declaración responsable contenida en el ANEXO 2 el número de personas trabajadoras que van a emplear para la ejecución del contrato y su jornada laboral expresada en horas de trabajo al año. Si la plantilla no fuera homogénea a lo largo del contrato, se deberá presentar un calendario con indicación concreta de número de personas e individualizando su jornada anual de trabajo en horas de trabajo por persona, así como las fechas de inicio y fin del contrato

9.9.2.1.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa.- Kontratuaren arduradunak kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egingo du, eta dokumentazio hori edo beste bat eskatu ahal izango dio kontratistari, kontratuaren betetze-maila kontrolatzeko eta ebaluatzeko dagozkion ahalmenak betetzeko. Halaber, jarraipen bilerak egiteko eta aldizkako ebaluazio txostenak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen ez direnean, kontratuaren arduradunak egoera horren berri emango dio kontratazio-organoari, eta, beharrezkoa bada, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

9.9.2.1.- Seguimiento del cumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.

Por parte de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.- La persona responsable del contrato realizará el seguimiento del cumplimiento de dichas condiciones especiales de ejecución y podrá recabar de la contratista, en cualquier momento durante la ejecución del contrato, la documentación correspondiente o cualquier otra que estime pertinente para ejercer sus facultades de control y evaluación del cumplimiento del contrato, así como solicitar la celebración de reuniones de seguimiento o informes periódicos de evaluación. Asimismo, la persona responsable del contrato informará al órgano de contratación sobre los posibles incumplimientos de las obligaciones previstas en el contrato, y, en su caso, propondrá el inicio del procedimiento de imposición de penalidades o de resolución del contrato.

Kontratista.- Kontratistak bere gain hartzen du kontratuaren arduradunaren eskura izateko betebeharra

Por parte de la persona contratista. La contratista asume la obligación de tener a disposición de la persona

eta hari eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia ematekoa, hala egiaztatu ahal izateko betetzen direla hala baldintza-agiri honetan jasotzen diren gauzatze-baldintza bereziak nola 2. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenean harturiko konpromisoak.

responsable del contrato y facilitar la información y documentación requerida por ella para acreditar el cumplimiento tanto de las condiciones especiales de ejecución recogidas en el presente pliego, como de los compromisos adquiridos en la declaración responsable del ANEXO 2

9.9.2.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

9.9.2.2.- Consecuencias del incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución.

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik.

El órgano de contratación podrá imponer penalidades a la empresa contratista por incumplir las condiciones especiales de ejecución.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea ez-betetze arintzat joko da, eta zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izan daiteke, salbu eta kontratazio-organoak uste badu —era arrazoituan—, ez-betetzea larria edo oso larria dela. Halakoetan, zigorra % 7ra artekoa izan daiteke, ez-betetze larria gertatzen bada, eta % 10era artekoa, berriz, ez-betetze oso larria gertatzen bada. Larritasun-maila kalkulatzeko, kontuan hartuko da ez-betetzearen errepikapena.

El incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución se calificará como leve y la cuantía de la penalidad será hasta un 4 % del precio del contrato salvo que motivadamente el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrá alcanzar hasta un 7%, en el primer caso, y hasta un 10% en el segundo. La reiteración en el incumplimiento se tendrá en cuenta para valorar la gravedad.

Baldintza-agiri honen karatulako "U" atalak (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen dituen gauzatze-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak atal horretan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango ditu. Atal horretan ("U" - BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ez bada zigorrik aurreikusten, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteko da, eta bertan aurreikusitako zigorrak ezarri ahal izango ditu kontratazio-organoak.

Para el caso de incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución previstas en el apartado "U "OTRAS ESPECIFICACIONES" de la carátula del presente pliego, el órgano de contratación podrá imponer las penalidades previstas en el citado apartado. En defecto de previsión de penalidades en el citado apartado "U" OTRAS ESPECIFICACIONES", se estará a lo dispuesto en el párrafo anterior y el órgano de contratación podrá imponer las penalidades previstas en el mismo.

Zigorrak betetzeko aukera bi daude: batetik, zigor horien zenbatekoa kendu egin daiteke kontratistari egin behar zaizkion ordainketa oso edo partzialetatik; bestetik, zigor hori bermetik ken daiteke, halakorik eratu bada eta zigor horien zenbatekoa ezin bada egin beharreko ordainketatik kendu.

Las penalidades se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse a la contratista o sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido cuando no puedan deducirse del pago.

9.9.3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak.

9.9.3.- Reglas especiales respecto del personal laboral de la empresa contratista-adjudicataria.

1.- Kontratu hau egiteko erabiliko diren langileei dagokienez, enpresa kontratista-adjudikaziodunak bere gain hartzen du enpresaburu guztiek enpresa zuzentzeko berez duten boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe erabiltzeko betebeharra. Hain zuzen ere, honako jarduera hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebehar legalak betetzea; diziplina-zehapenak jartzea —hala badagokio—; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; eta enplegatuaren eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

1.- En relación con los trabajadores y las trabajadoras destinados/as a la ejecución de este contrato, la empresa contratista-adjudicataria asume la obligación de ejercer de modo real, efectivo y continuo el poder de dirección inherente a todo/a empresario/a. En particular, asumirá la negociación y pago de los salarios, la concesión de permisos, licencias y vacaciones, las sustituciones, las obligaciones legales en materia de prevención de riesgos laborales, la imposición -cuando proceda- de sanciones disciplinarias, las obligaciones en materia de Seguridad Social, incluido el abono de cotizaciones y el pago de prestaciones, así como cuantos derechos y obligaciones se deriven de la relación contractual entre empleado/a y empleador/a.

2.- Enpresa kontratista-adjudikazioduna behartuta dago

2.- La empresa contratista-adjudicataria estará obligada a

kontratuaren helburua bere bulego edo instalazioetan betetzera; baina, salbuespenez, baimena eman dakioke zerbitzuak administrazio-bulegoetan egiteko. Kasu horretan, enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileek, ahal delarik, langile publikoetatik bereiz egongo dira, hau da, beste leku bat okupatuko dute. Enpresa kontratista-adjudikaziodunari dagokio baldintza hau ere betetzea.

ejecutar el contrato en sus propias dependencias o instalaciones salvo que, excepcionalmente, sea autorizada a prestar sus servicios en las dependencias administrativas. En este caso, el personal de la empresa contratista-adjudicataria ocupará, a poder ser, espacios de trabajo con separación física del que ocupa el personal empleado público. Corresponde también a la empresa contratista-adjudicataria velar por el cumplimiento de esta obligación

3.- Enpresa kontratista-adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez ere; pertsona horrek enpresako plantillakoa izan behar du, eta betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratista adjudikazioduneko langileek enpresa kontratatzaileari kontratuaren gauzatzea dela-eta egin beharreko edozein jakinarazpen jaso eta transmititzea.
b) Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, bereziki langileak lanera joaten diren eta nola hartzen dituzten oporrak. Izan ere, kontratatutako zerbitzua ez eragoztea da helburua.

3.- La empresa contratista-adjudicataria deberá designar al menos un/a coordinador/a técnico/a o responsable, integrado en su propia plantilla, que tendrá entre sus obligaciones las siguientes:

a) Recibir y transmitir cualquier comunicación que el personal de la empresa contratista-adjudicataria deba realizar a la empresa contratante en relación con la ejecución del contrato.
b) Controlar el cumplimiento de las normas laborales de la empresa contratista-adjudicataria, en particular en materia de asistencia del personal al lugar de trabajo y disfrute de vacaciones, de manera que no se perturbe la prestación del servicio contratado.

9.9.4.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko betebeharrak

9.9.4.- Obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales

Kontratistak, adjudikatu zaion lana betetzeko erabiliko dituen langileak direla eta, zehatz-mehatz bete behar du lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia. Halaber, kontratistak beste konpromiso bat hartu behar du: enpresa azpikontratistek —halakorik egonez gero—, haien langileak direla-eta, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko dutela.

La contratista respecto al personal que emplee en la realización del trabajo adjudicado, está obligada al estricto cumplimiento de la normativa vigente en materia de prevención de riesgos laborales comprometiéndose a que por parte de las empresas subcontratistas -en su caso- se cumpla la legislación vigente relativa a prevención de riesgos laborales.

Bereziki, enpresa kontratistak hauek bete behar ditu:

En particular, la empresa contratista:

1.- Laneko segurtasun eta osasunerako nahitaezkoak edo beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar ditu, langileen bizitzari, segurtasunari eta osasunari eragin ahal dieten arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko. Halaber, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betebeharrak bete behar ditu, eta kontratatu zaion jarduera hasi aurretik ziurtatu behar du jarraian zehazten diren betebeharrak betetzen dituela. Hori ziurtatzeko, orri honekin batera doan **Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko eranskina** aurkeztu behar du Kontratazio Zerbitzuan. Hauek dira betebeharrok:

1.- Adoptará cuantas medidas de seguridad y salud en el trabajo fueran obligatorias o necesarias en orden a la más perfecta prevención de los riesgos que puedan afectar a la vida, la integridad y la salud de las personas trabajadoras. Cumplirá así mismo las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales establecidas por la normativa vigente y antes del inicio de la actividad contratada deberá certificar el cumplimiento de las siguientes obligaciones mediante la aportación al Servicio de Contratación del **Anexo de Prevención de Riesgos Laborales** que acompaña al presente Pliego:

a) Enpresaren barruan prebentziorako ezarritako antolaketa indarrean dagoen legediaren araberakoa izatea.

a) Haber adoptado una modalidad de organización preventiva acorde con la legislación vigente.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresa osoko kudeaketa sistema orokorraren barruan sartzea; horretarako, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartu duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko 2.

b) Integrar la prevención de riesgos laborales en el sistema general de gestión de la empresa mediante la implantación y aplicación de un plan de prevención de riesgos laborales según el artículo 2 del Reglamento de los

artikuluaren araberako plan bat ezarri eta aplikatu behar du lan-arriskuen prebentziorako.

c) Kontratatutako jarduerari dagokion arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza egitea.

d) Ezarrita dauden segurtasun-neurriak betetzearen kontrola bermatzea. Beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan eta Hitzarmen Kolektiboan zehazten diren diziplina-neurriak hartuko ditu, langile guztien segurtasuna bermatzeko.

e) Arriskuen ebaluazioa dela-eta prebentzio-baliabideren bat egotea eskatzen duten zereginen eta/edo jardueren zerrenda izatea.

f) Kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten langile guztiek —barnekoak zein kanpokoak— haien enpresara sartu direnean arrisku zehatzei, babes-neurriei eta larrialdirako neurriei buruzko informazioa jaso behar izan dute; gainera, langile bakoitzak bere jarduerak dituen arriskuei buruzko prestakuntza nahikoa izan behar du (31/1995 Legeko 18. eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), Prebentzio Planeko prozeduraren arabera beti ere. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduei buruzko prestakuntza egokia eman behar izan zaie.

g) Norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren ziurtagiria izatea, ekipamenduok beharrezkoak badira.

h) Bizkaia Bizkaialde Fundazioari aurkeztea zerbitzuan parte hartuko duten enpresa azpikontratisten eta langile autonomoen zerrenda: adierazi behar da jarduera zein egunetan hasi eta amaituko den, zein den azpikontratatutako jarduera eta zein langilek egingo dituzten lan horiek.

2.- Enpresak kontratuaren exekuzioaren zati bat azpikontratatzen badu, enpresa nagusiari eskatzen zaion dokumentazio bera eskatu behar die azpikontratei, eta haren kopia bat eman behar dio Bizkaia Bizkaialde Fundazioari, azpikontrataturiko jarduera hasi baino lehen.

3.- Bizkaia Bizkaialde Fundazioak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu bermatzeko enpresa kontratistak betetzen dituela lan-arriskuen prebentzioa dela-eta dituen betebeharrak.

4.- Kontratistak ez balitu beteko klausula honetan ezartzen diren betebeharrak, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak erreklamatu ahalko lioke beharrezko neurriak hartzea arestian adierazitako betebehar horiek guztiak betetzen dituela bermatzeko, eta, gainera, araudian aurrez ikusten diren neurriak ere hartu ahalko lituzke.

Klausula honetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahalko da.

Servicios de Prevención, aprobado por el RD 39/1997 de 17 de enero.

c) La evaluación de riesgos y planificación de la actividad preventiva correspondiente a la actividad contratada.

d) Asegurar el control del cumplimiento de las medidas de seguridad establecidas procediendo en su caso a la adopción de medidas disciplinarias previstas en el Estatuto de los Trabajadores y Convenio Colectivo –entre otros- para garantizar la seguridad de todas las personas trabajadoras.

e) Disponer de una relación tareas y/o actividades que por la evaluación de sus riesgos exigen la presencia de un recurso preventivo.

f) Que todo el personal que intervenga en la ejecución del contrato, tanto propio como ajeno, haya recibido de su empresa en el momento de incorporación una información de riesgos específicos, medidas de protección y medidas de emergencia, así como, que haya recibido la formación necesaria sobre los riesgos que afectan a su actividad (artículos 18 y 19 de la Ley 31/1995 y Ley 32/2006 y Real Decreto 1109/2007), de acuerdo con el procedimiento del Plan de Prevención. En particular, que se haya dado la formación pertinente sobre el uso de EPIs.

g) Disponer de Justificante de la entrega de equipos de protección individual, que en su caso, fueran necesarios.

h) Presentar a la Fundación Bizkaia Bizkaialde la relación de empresas subcontratistas y personas trabajadoras autónomas que vayan a participar en el servicio con indicación de la fecha de inicio y finalización de la actividad, actividad subcontratada y personal que realizará las tareas.

2.- Si la empresa subcontratara parte de la ejecución del contrato, deberá exigir a las subcontratas la misma documentación que se requiere a la principal y entregar una copia a la Fundación Bizkaia Bizkaialde antes del inicio de la actividad subcontratada.

3.- La Fundación Bizkaia Bizkaialde adoptará las medidas que considere necesarias para comprobar el cumplimiento de los requisitos en materia de prevención de riesgos laborales por parte de la empresa contratista.

4.- En caso de incumplimiento de la contratista de las obligaciones previstas en la presente cláusula, la Fundación Bizkaia Bizkaialde podrá reclamar la adopción de las medidas necesarias para garantizar la total observancia de las obligaciones señaladas y ejercitar todas las acciones previstas en la normativa.

El incumplimiento de las obligaciones previstas en la presente cláusula podrá ser causa de resolución del contrato.

9.9.5.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko gauzatze-baldintza bereziak

- Enpresa kontratistak zenbait pertsona izan behar ditu zuzendaritza lanak betetzeko, prebentzio-planaren arabera, eta pertsona horiek prestakuntza nahikoa izan behar dute lan-arriskuen prebentzioa beren jarduera eta erabakietan txertatzeko.

- Enpresa kontratistak segurtasunaren eta osasunaren arduradun bat izendatu behar du enpresa barruan. Arduradun horrek prebentzioaren arloko prestakuntza espezializatua izan behar du, eta lan-arriskuen prebentziorako plana kudeatzeaz arduratuko da.
- Aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura bat izan behar du enpresak, baldin eta berak ematen dituen zerbitzuek laneko segurtasun eta osasunerako arrisku berezirik eragin badezakete. Enpresak duen prebentzio-antolaketaren barruan egin behar dira ikuskapenok, prebentzio-planaren barruko ikuskapen-prozeduran zehaztutako jarraibideen arabera. Prozedura horren barruan, hain zuzen ere, aldian-aldian egiaztatu behar da arriskuen ebaluazioan aurrez ikusi diren babes kolektiborako neurriak betetzen direla eta norbera babesteko ekipamenduak benetan erabiltzen direla.
- Kontratuaren gauzatzean langile etorkinak sartzen direnean, prozedurak ezarriko dira komunikazio eraginkorra lortu ahal izateko; horren helburua da prebentzio sistema egokia bermatzea.

9.9.6.- Aseguruak

Baldintza teknikoen agirian beren-beregi ezartzen dena gorabehera, kontratistak, oro har, erantzukizun zibileko aseguru bat formalizatu behar du zerbitzurako, alde orokorra, patronala eta amaitutako lanak estaliko dituena. Aseguru horretan, kontratista bera eta azpikontratista ere —halakorik izanez gero— izango dira asegurudunak. Aseguruaren zenbatekoak erreserbarik gabe estali behar ditu kontratistak zein azpikontratistak zerbitzua betetzean eta kontratuaren ondorioz dituzten betebeharrak aurrera eramatean hirugarrenei zuzenean nahiz zeharka eragiten zaizkien kalte guztiak, halakorik gertatuz gero.

Plegu honetako karatulan ez bada kopururik aipatzen, lana gauzatzea bermatzeko nahikoa den zenbatekoan formalizatuko da asegurua.

Zenbateko hori gutxienekotzat eta zatiezintzat joko da, baina zabaldu egin daiteke, ondorio berberekin, zerbitzu osorako, hirugarren batzuei eragiten zaizkien gorabeherei aurre egiteko, baldin eta gorabehera horien erantzukizuna benetan kontratistari exijitu badakioke indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrita eta kasuan kasuko edo

9.9.5.- Condiciones especiales de ejecución en materia de prevención de riesgos laborales

- La empresa contratista deberá disponer de personas que, conforme al plan de prevención, ejerzan funciones de dirección y hayan recibido la formación necesaria para integrar la prevención de riesgos laborales en el conjunto de sus actividades y decisiones.
- La empresa contratista nombrará una persona responsable de seguridad y salud perteneciente a la empresa, que tenga formación especializada en prevención y que gestione el plan de prevención de riesgos laborales.

- Disponer de un procedimiento de inspecciones periódicas en la prestación de servicios cuya ejecución pueda generar especial riesgo para la seguridad y salud laboral, a través de su organización preventiva siguiendo las pautas establecidas en el procedimiento de comprobación específico del plan de prevención. En dicho procedimiento deberá incluirse la comprobación periódica de las medidas de protección colectiva previstas en la evaluación de riesgos, así como el uso efectivo de los EPIs.

- Cuando en la ejecución del contrato se incorporen personas trabajadoras inmigrantes, proveer procedimientos que permitan una comunicación eficaz para garantizar un sistema de prevención adecuado.

9.9.6.- Seguros

Sin perjuicio de lo previsto específicamente en el Pliego de Prescripciones Técnicas, la empresa contratista vendrá obligada a suscribir con carácter general para el servicio, un seguro de responsabilidad civil, en sus vertientes general, patronal y de trabajos terminados, incluyendo como asegurada a la contratista y a la subcontratista, en su caso, por el importe que asegure sin reservas cuantos daños directos e indirectos puedan serle exigibles por posibles afecciones a terceros derivados de la ejecución del servicio y desarrollo general de sus obligaciones contractuales.

Si en la carátula del presente pliego no se hace mención de cantidad, el seguro será suscrito por un importe suficiente que asegure la ejecución del trabajo.

La cuantía mencionada, se entenderá como mínima y no divisible, pero extendida, con idénticos efectos, a las incidencias que pudieran surgir ante terceros para la totalidad del servicio, en la medida que, con arreglo a la reglamentación vigente y mediante las actuaciones que en su caso o en derecho procedan, sean efectivamente

zuzenbidearen arabera dagozkion jarduketen bidez.

Asegurua kontratatu arren, kontratista ez da bere erantzukizunetatik aske geratuko; horregatik, aseguru-etxeak ezarritako ez-betetzeak bereganatu beharko ditu.

exigibles a la responsabilidad de la contratista.

La contratación de este seguro por la contratista, no le libera de sus responsabilidades por lo que queda obligada a asumir los incumplimientos que la compañía de seguros tenga establecidos.

9.9.7.- Hirugarrenen baimenak

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak bere gain hartu ahal ditu egokitzat jotzen dituen kontratuak eta kudeaketak. Hori gorabehera, kontratistaren erantzukizuna da lana egokiro gauzatzeko partikularrei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatu behar zaizkien baimen eta lizentzia guztiak eskatzea.

Hori dela eta, kontratistak onartu egin beharko ditu ukitutakoek euren eskubide eta eskumenak erabiliz ezartzen dizkioten baldintza eta preskripzio guztiak, bai eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren iritziz lana hobeto egiteko komenigarriak edo zentzuzkoak diren eskaera eta gomendio guztiak ere.

9.9.7.- Permisos de Terceros

Con independencia de los contratos y gestiones que la Fundación Bizkaia Bizkaialde estime oportuno asumir por sí misma, la contratista se responsabilizará de cuantos permisos y licencias sean precisas ante particulares, asociaciones, empresas y organismos, para una correcta ejecución del trabajo.

A tales efectos la contratista habrá de asumir cuantas condiciones y prescripciones le sean impuestas por cada afectado en uso de sus correspondientes derechos y competencias y cuantas peticiones o recomendaciones aparezcan suficientemente razonables o se estimen convenientes a juicio de la Fundación Bizkaia Bizkaialde para la mejor marcha de los trabajos.

9.9.8.- Materialen zaintza-betebeharra adjudikaziodunarentzat.-

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak material guztiak edo haien parte bat jartzen badu, adjudikaziodunaren zaintzapean uzten direla joko da, eta adjudikazioduna materialok gordetzera eta itzultzera beharturik egongo da. Eta ondasunon zaintzari eta galerari dagokionez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean eta Zigor Kodean xedatzen denari jarraituko zaio.

9.9.8.- Obligación de la adjudicataria de guarda de materiales.-

Si la Fundación Bizkaia Bizkaialde aportare total o parcialmente determinados materiales, se considerarán éstos depositados bajo la custodia de la adjudicataria estando obligada a guardarlos y restituirlos. Y en cuanto a la guarda y pérdida de esos bienes se estará a lo dispuesto en el Código Civil, Código de Comercio y Código Penal.

9.9.9. Oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzea desgaitasuna duten pertsonentzat

Enpresa kontratistak, ahal duen neurrian, Bizkaia Bizkaialde Fundazioarekin egingo du lan edo harekin lankidetzan jardungo, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzeko, halakorik baldin bada kontratuaren xedepeko zerbitzu, ekitaldi nahiz jardueretan.

9.9.9. Eliminación de las barreras arquitectónicas y de comunicación para las personas con discapacidad.

En la medida de sus posibilidades la empresa contratista trabajará o colaborará con la Fundación Bizkaia Bizkaialde para eliminar las barreras arquitectónicas y de comunicación que puedan existir en los servicios, eventos o actividades objeto del contrato.

9.9.10.- Datu pertsonalak isilpean gordetzeko eta babesteko betebeharra.

Kontratua betetzen ari dela, adjudikaziodunak kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta publikoak edo jakinak ez diren datu eta aurrekariak jakiten baditu, sekretupean gorde beharko ditu.

Kontratatutako lana egitearen ondorioz datu pertsonalak erabiltzen badira, enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak, baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) ezarritakoak.

9.9.10.- Obligación de guardar sigilo y de protección de datos personales.

La adjudicataria deberá guardar sigilo respecto a datos o antecedentes que, no siendo públicos o notorios, estén relacionados con el objeto del contrato, y de los que tenga conocimiento con ocasión del mismo.

Si como consecuencia de la ejecución del trabajo contratado se utilizaran datos personales, la empresa adjudicataria se obliga a cumplir con las exigencias establecidas en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales y en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre; así como lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da erregelamendu hori, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra derogatzen du).

Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento General de Protección de Datos).

Kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira hauek: adjudikaziodunak edo haren langileek sekretua gordetzeko betebeharra urratzea eta datu pertsonalak babesteko araudia ez betetzea.

Son causas de resolución del contrato la vulneración del deber de secreto por la adjudicataria o su personal, así como el incumplimiento de la normativa sobre protección de datos personales.

9.10.- Kontratistaren ondorengotza-kasuak.

9.10.- Supuestos de sucesión de la contratista.

Enpresa kontratistaren partaidetza duen enpresa bat bat-egite batean sartuta badago, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bat-egitetik sortu den erakundearekin, eta azken erakunde horri kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Halaber, enpresak edo haien jardun-arloak zatitu, ekarri edo eskualdatzen direnean, kontratuak indarrean jarraituko du arestian aipatutako eragiketa horren ondoriozko erakundearekin edo erakunde onuradunarekin, eta azken erakunde horrek eragiketa haren ondoriozko eskubide-betebehar guztiak subrogatuko ditu, betiere adjudikazioa erabakitzerakoan eskatzen diren gaitasuna, kontratatzeko debekurik eza eta kaudimena baldin baditu, edo aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek —eta, iraunez gero, ondarea, enpresak edo horien jardun-arloak dauzkan sozietateak— erantzukizun solidarioa badute kontratua gauzatu behar duenarekin. Kontratua esleitzen zaion erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak ez dituelako, ezin bada subrogatu, kontratua suntsiarazi egingo da, eta, ondorio guztietarako, adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela ulertuko da.

En los casos de fusión de empresas en los que participe la sociedad contratista, continuará el contrato vigente con la entidad absorbente o con la resultante de la fusión, que quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones dimanantes del mismo. Igualmente, en los supuestos de escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas, continuará el contrato con la entidad a la que se atribuya el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, siempre que reúna las condiciones de capacidad, ausencia de prohibición de contratar, y la solvencia exigida al acordarse al adjudicación o que las diversas sociedades beneficiarias de las mencionadas operaciones y, en caso de subsistir, la sociedad de la que provengan el patrimonio, empresas o ramas segregadas, se responsabilicen solidariamente con aquellas de la ejecución del contrato. Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato, considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.

Aurrekoa bete dadin, enpresak kontratazio-organoari eman beharko dio gertatutakoaren berri.

A los efectos anteriores la empresa deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.

Atal honen lehen paragrafoan aipatzen diren merkataritzako eragiketen ondorioz beste entitate bati esleitzen zaionean kontratua, behin betiko bermea —hura ematen duen entitatearen iritzian— berritu egin daiteke edo beste batekin ordeztu, entitate berriak beste berme bat sinaturik, baina kontuan hartuta entitate berri horrek zer arrisku-ezaugarri berezi dituen. Halakoetan, lehenengo behin betiko bermeak bere indarraldia gordeko du harik eta berria eratzen den arte.

Cuando como consecuencia de las operaciones mercantiles a que se refiere el párrafo primero de presente apartado se le atribuyera el contrato a una entidad distinta, la garantía definitiva podrá ser, a criterio de la entidad otorgante de la misma, renovada o reemplazada por una nueva garantía que se suscriba por la nueva entidad teniéndose en cuenta las especiales características del riesgo que constituya esta última. En este caso, la antigua garantía definitiva conservará su vigencia hasta que esté constituida la nueva garantía.

Kontratistaren ondorengoari dagokionez, aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, SPKLren 69.9. artikuluan ezartzen denari jarraituko zaio.

En lo relativo a la sucesión de la contratista, cuando esta sea una unión temporal de empresas, se estará a lo establecido en el artículo 69.9 de la LCSP.

9.11.-Gardentasuna.

9.11.-Transparencia.

Bizkaia Bizkaia Bizkaialde Fundazioak gardentasuna

A fin de que la Fundación Bizkaia Bizkaialde pueda

berma dezan bere bi dimentsioetan (publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea), enpresa adjudikaziodunak helburu hori betetzeko behar den informazioa eman beharko dio kontratazio-organoari, horretarako errekerimendua egin ondoren.

Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa adjudikaziodunak kontratutik sorturiko informazio guztia eman beharko du, kontratazio-organoak hala eskaturik, formatu berrerabilgarrietan.

garantizar la transparencia, en su doble dimensión de publicidad activa y de derecho de acceso a la información pública, la empresa adjudicataria estará obligada, previo requerimiento, a suministrar al órgano de contratación la información necesaria a tal fin.

Asimismo, durante la ejecución del contrato la empresa adjudicataria deberá, a requerimiento del órgano de contratación, suministrar toda aquella información derivada del mismo en formatos reutilizables

10.- KONTRATUA AZKENTZEA.

10.- EXTINCIÓN DEL CONTRATO.

Betetzen edo suntsiarazten denean azkenduko da kontratua.

El contrato se extinguirá por su cumplimiento o por resolución.

A) Kontratua betetzea.

A) Cumplimiento del contrato.

Kontratistak kontratua bete duela joko da prestazioa osorik egiten duenean, eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioak nahi zuen eta kontratuan zehaztu zen bezala egina bada.

El contrato se entenderá cumplido por la contratista cuando ésta haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Fundación Bizkaia Bizkaialde, la totalidad de la prestación.

10.1.- Jasotzea.

10.1.- Recepción.

Hori egiaztatzeko, Bizkaia Bizkaia Bizkaialde Fundazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat egin behar du (**Onarpen-akta**) kontratuaren xedea entregatu edo burutzen denetik hurrengo hilaren barruan, plegu honen karatulan beste eperik ezartzen ez bada.

Su constatación requiere por parte de la Fundación Bizkaia Bizkaialde de un acto formal y positivo de recepción o conformidad (**Acta de recepción**) dentro del mes siguiente a la entrega o realización del objeto del contrato, si no se ha determinado otro en la carátula de este pliego.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioak erabakiko du ea kontratistak egindako prestazioa behar bezala egokitzen zaien prestazioa gauzatzeko eta betetzeko ezarritako betekizunei, eta, hala dagokionean, prestazioak amaitzeko eta prestazioaren harreran ikusitako akatsak konpontzeko eskatuko du. Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

La Fundación Bizkaia Bizkaialde determinará si la prestación realizada por la contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción. Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables a la contratista, podrá rechazarse la misma quedando exenta de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.

Lanak eman eta zerbitzuak egiterakoan eta haiek guztiak hartzerakoan, SPKLren Erregelamendu Orokorreko 203. eta 204. artikuluetan ezartzen dena bete behar da.

La entrega de los trabajos y la realización de los servicios y su recepción serán conforme a lo previsto en los artículos 203 y 204 del RGLCAP.

10.2.- Kontratuaren likidazioa.

10.2.- Liquidación del contrato.

Harrera-akta edo adostasun-akta egiten denetik kontatuta, hogeita hamar eguneko epearen barruan onartu eta jakinarazi behar zaio kontratistari bidezkoa den kontratu-likidazioa, eta, kasua bada, dagokion saldoa ordaindu.

En el plazo de treinta días, a contar desde la fecha del acta de recepción o conformidad, deberá acordarse y ser notificada a la contratista la liquidación correspondiente del contrato y abonársele, en su caso, el saldo resultante.

10.3.- Berme-epeko akatsak eta hutsak.

10.3.- Vicios y defectos durante el plazo de garantía.

Berme-epea ezartzen bada, jaso edo adostasuna ematen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta, epe hori igarota Bizkaia Bizkaialde Fundazioak ez badu eragozpenik jartzen, azkendurik geratuko da enpresa kontratistaren

El plazo de garantía establecido, en su caso, comienza a contar desde la fecha de recepción o conformidad, transcurrido el cual sin objeciones por parte de la Fundación Bizkaia Bizkaialde quedará extinguida la

erantzukizuna.

Egindako ondasunetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-epean, kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea izango du kontratazio-organoak, akats edo huts horiek konpon diezazkion.

Aurreko lerroaldeetan aipatutako eragozpenik zein salaketarik formalizatu gabe amaitzen bazaio Bizkaia Bizkaialde Fundazioari berme-epea, emandako prestazioa dela-eta izan zezakeen erantzukizunetik aske gelditzen da kontratista; nolanahi ere, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezartzen dena bete behar da. Artikuluok, hain zuzen, obra-proiektuak egiteko xedea duten kontratuetan izan daitezkeen hutsak konpontzeari eta kontratuotako erantzukizunari buruzkoak dira.

responsabilidad de la empresa contratista.

Si durante el plazo de garantía se acreditase la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar a la contratista la subsanación de los mismos.

Terminado el plazo de garantía sin que la Fundación Bizkaia Bizkaialde haya formalizado alguno de los reparos o la denuncia a que se refieren los apartados anteriores, la contratista quedará exenta de responsabilidad por razón de la prestación efectuada, sin perjuicio de lo establecido en los artículos 314 y 315 LCSP sobre subsanación de errores y responsabilidad en los contratos que tengan por objeto la elaboración de proyectos de obras.

B) Kontratua suntsiaraztea.

B) Resolución del contrato.

10.4.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

10.4.- Causas de resolución.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLren 211. eta 313. artikuluetan eta Kode Zibilean xedatutakoak.

Son causas de resolución del contrato, las previstas en los artículos 211 y 313 de la LCSP y en el Código Civil.

Kontratua desegiteko arrazoiak aplikatzeari eta haien ondorioei dagokionez, baldintza-agiri honetan, SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan eta Kode Zibilean ezartzen dena bete behar da.

En lo que respecta a la aplicación de las causas de resolución y sus efectos se estará a lo establecido en este pliego, en los artículos 212, 213 y 313 de la LCSP y en el Código Civil.

11.- KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

11.- CESIÓN DE LOS CONTRATOS Y SUBCONTRATACIÓN.

11.1.- Kontratuak lagatzea.

11.1.- Cesión de los contratos.

Posible da kontratua subjektiboki aldatzea kontratu-lagapenaren bitartez, baina honako muga eta betekizunekin:

